

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eman ahal izateko beharrezkoa izango dugu funtsezko sozietate batzuekin harremana mantentzea.

Lehenik eta behin, Solargi enpresak aurrera egiteko ezinbesteko hornitzaileez baliatuko gara, hau da, kasu honetan gure negozio osatzeko beharrezkoak diren mugikorreko estalkiak, eguzki plakak eta bestelako produktuak izango lirateke. Gure mugikorren estalkiak Odudianzi markakoak dira eta eguzki plakak eta gainerako osagarriak GTIWUNG markatik eskuratuko ditugu, hainbat erabiltzailek eraginkortasun handiko produktuak dituen marka dela diotenez.

Honako hornitzaileekin harreman estua izango dugu gure estalkiak bezeroen erosketa-eskaeretan oinarrituta ekoitziko ditugulako eta, beraz, hilabetez hilabete eskaera handiak egin beharko ditugu. Enpresak aurrera egiteko ezinbestekoak diren hornitzaile hauekin izango dugun harremana zehaztea; asteen behin edo bitan kontaktuan jarriko gara gure bezeroen eskaeren berri emateko. Enpresa hauekin harreman formala eta jarraitua mantentzeko bilera bat antolatuko dugu hilean bitan, etorkizuneko produktu eskaerarako kantitateak zehazteko. Azkenik, bi enpresa hauekin salmenta-kontratu baten bidez formalizatuko dugu akordio hau, enpresen arteko harremanaren baldintzak zeintzuk diren zehazteko.

Jarraitzeko, etxez-etxeko banaketa enpresa bat azpikontratatu dugu gure produktu guztiak banatu ahal izateko. Garraiobide honen bidez bezeroei eskaerak segurtasunez eta azkar bidaltzeko aukera izango dugu. Banaketa enpresarekin harreman konstantea izango dugu, sarean eta handizkakoan salduz, gure enpresarentzat oinarritzko zerbitzua baita. Beste alde batetik, gure enpresen artean eztabaidatu dugunaren arabera, kolektiboki adostu dugu logistika-enpresa gure lan-eremutik egunero

igaroko dela lanegunetan goizeko lehen orduetan, goizeko 08:00etatik 10:00etara.

Bestalde, webgunea izateaz gain, gure bezeroei aukera ematen diegu gure produktu berrienak erosteko dendan, fisikoak zein online, herrialdeko hiri askotan kokatuta dagoen banaketa katean, Fnac deitua. Banatzaile honi esker, biztanle gehiagok gure negozio txikiaren berri izan eta horrela bezero gehiago lortu ahal izango ditugu. Banatzaile honekin izango dugun harremana aste eta erdian behin izango da, handizkako produktuen gisara erosi nahi dizkiguten produktuen arabera produktu gehiago edo gutxiago ekoiztu beharko baititugu. Solargiren banatzaile oinarritzkoenarekin gertuko harremana mantentzeko hiru hilean behin afari bat egingo dugu, non bi enpresek bizi duten egoeraz eta gure produkturako etorkizuneko ideiez hitz egingo dugu.

Amaitzeko, gure produktuak ontziratzekeo "21 x 10 x 7" eta "6,5 x 44 x 55,5" neurriko kartoizko kaxak erabiliko ditugu, cajeando webgunekoak. Txikiekin gure estalkiak eta osagarriak webgune ofizialaren bitartez eskaera egiten duten bezero guztien etxeetara modu seguru batean iristen direla ziurtatu dezakegu eta, bestetik, handiagoak direnak gure handizkako produktuak Fnac-era bidaltzeko erabiliko ditugu, gure bezero oinarritzkoenetako bat dena. Gure bezeroen eskaeren arabera erosteko asmoa dugu, beraz, bi tamainatako kaxak hilero erostea aurreikusten da. Hauekin nahiko harreman puntuala mantenduko dugu, hilabetean bitan jarriko baikara harremanetan hurrengo hilabeterako izango ditugun salmenta-kopuruak zehazteko, eta bestetik bi hilabetean behin haiekin bilera bat antolatuko dugu etorkizuneko eskaeren prezioak zehazteko.